

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO ABUZTUA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %9,0ko hazkunde-tasa izan du 2006ko abuztuan

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetako hazkundea %4,5ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko otsailaren aldean %9,0 hazi da 2006ko abuztuan. Urteko lehenengo zortzi hilabeteetako hazkundea %4,5ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean.

2006ko abuztuan, eta 2006ko uztailaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %4,4 hazi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2006ko uztail-abuztuko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko abuztuko indizearen bilakaerak (2005eko abuztuaren aldean) aldaketa positiboak izan ditu sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak %29,0 hazi dira; tarteko ondasunak %7,3 igo dira; energia %2,9 igo da, eta kontsumoko ondasunak

%1,2 igo dira, kontsumo-ondasun iraunkorrek eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek izandako gehikuntzen ondorioz (%5,2 eta %0,4 hurrenez hurren).

2006ko abuztuko hilabete arteko aldakuntzek (2006ko uztailaren aldean) zeinu ezberdina izan dute industriako sektoreetan. ekipamenduko ondasunak %12,2 gehitu da hilabete artean, tarteko ondasunak %0,4 jaitsi dira aurreko hilaren aldean, energia %1,3 murriztu da eta kontsumoko ondasunak %0,9 jaitsi dira uztailekoen aldean, kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %1,7 gutxitu direlako eta kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,6 gehitu direlako.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %15,6 hazi da, Gipuzkoan %12,2 hazi da eta Bizkaian %4,7.

2006ko uztailetik abuztura arteko tasak hiru lurraldeetan gehitu dira: Araban %9,2 gehitu dira, Gipuzkoan %5,3 eta Bizkaian %1,2.

Taula: 2006ko Abuztua. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Abu06/Abu05	At/At-1 (1)	Abu06/Uzt06	Uzt06/Eka06
Indize orokorra: Euskal AE	9,0	4,5	4,4	0,2
Araba	15,6	3,9	9,2	1,0
Bizkaia	4,7	5,0	1,2	1,4
Gipuzkoa	12,2	4,4	5,3	-1,5
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,2	0,1	-0,9	0,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	5,2	0,0	0,6	0,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,4	0,2	-1,7	0,3
Ekipo-ondasunak	29,0	8,5	12,2	-2,0
Bitarteko ondasunak	7,3	2,2	-0,4	1,1
Energia	2,9	11,0	-1,3	2,2

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>